

Kultura

'Sarri, hitzez eta ahotsez' ekimena errezitaldi batekin amaituko dute maiatzaren 9an >11



1.900 pertsona pobrezia egoeran bizi dira Durangaldean

Maiatzaren 1eko Langileen Nazioarteko Egunean murrizketek eskualdean izan duten eragina salatu dute herritarrek eta sindikatuek >3



Kepa Aginako

Ekintzaileei zuzendutako lokal bi egokitu ditu Mallabiko Udalak >6

Herrian zenbait zerbitzu falta direla-eta, ekintzaileei zuzendutako lokal bi egokitu ditu udalak. Era berean, tokiko ekonomiaren garapenean lagundu gura du udalak. Lanik barik dauden gazteak euren negozioa martxan jartzera animatu gura dituztela azaldu du Mila Mondragon alkateak. Mediku zentroko obrak aprobetxatu dituzte lokalak prest uzteko. Guztira, 80.000 euroko inbertsioa egin dute. Orain, udalak pleguak prestatuko ditu, eta interesa dutenek ize-na eman ahal izango dute.



UNDARRI BIKE

946 817 808 - www.undarribike.com
Bidebarrieta, 5 behea - 48215 IURRETA

**%5eko
DESKONTUA**
kupoia erakutsita

**UNDARRI
BIKE**

COLUER 24"
Mendiko bizikleta
315€



COLUER 24"
Mendiko bizikleta
315€



Durangaldea > 3

Tratu txarrak jasaten dituztenei arreta espezializatua emango die Amankomunazgoak

Durango > 8

Zinegotzien soldatak eta dietak argitaratzea erabaki du udalak

Zornotza > 2

Asturiasko kultura ezagutaraziko dute maiatzaren 31n

Iurreta > 4

Orobiogoiako instalazioak herrira zabalduko dituzte

Langileen eskubideak aldarrikatu dituzte Maiatzaren 1eko mobilizazioetan

LABek Durangon deitu zuen manifestaziora atzo; ELA, CCOO eta UGT Bilbon mobilizatu ziren

> JONE GUENETXEA

Maiatzaren 1a murrizketen aurkako aldarrikapen eguna bihurtu zen atzo. LAB sindikatuak Durangon deitu zuen manifestazioan ehunka lagunek parte hartu zuten. Goizean kotxe karabanak abiatu zituzten Elorriotik eta Zornotzatik. Bestetik, Zornotza Eraldatuz herri ekimenak manifestaziora deitu zuen arratsaldeko 18:00etarako, Zelaia parketik abiatuta, *Prekarietateari, murrizketei, langabeziari, murrizketei... aurreegin!* lelopean.

Durangaldeko ELAk Bilboko mobilizazioetan parte hartzera deitu zuen. Gainera, eguerdian, BECen bazkaria antolatu zuten.

CCOOk eta UGTk, berriz, deialdi bateratua egin zuten atzo Bilbon manifestaziorako deia eginez.

Durangaldeko datuak

LAB sindikatuak Durangaldeko

datuak ekarri zituen atzo gogora. 1.900 pertsona pobrezia egoeran bizi dira eskualdean.

6.700 langabetu daude Durangaldean, %40 45 urtetik gorakoak dira

Langabezia datuei dagokienez, 6.700 langabetu daude Durangaldean, %40 45 urtetik gorakoak. LABen ustez, egoera horren aurrean beharrezkoa da bestelako Euskal Herri bat: “Bestelako eredu ekonomiko eta sozial bat beharrezkoa da, eta, batez ere, inposaketaren gainetik, eredu hori eraikitzea guri dagokigu”.

ELA sindikatuak azaldu duenez, “patronalaren neurrira egindako erreformek ekarri dute lanari gizatasuna kentzea, murrizketa sozialetan



Udaletxe aurreko plazatik abiatu zen atzo LABek deitutako manifestazioa. Kepa Aginako.

oinarritutako aurrekontuen egonkortasuna ezartzea, fiskalitate aurrerakoiari uko egitea, pentsioei eraso egitea eta abar”. ELAren arabera, politika horiek langabezia eta desberdintasunak areagotzen dituzte, eta posible dira edozein oreka sozial bermatzeari uko egin dioten gobernuen lankidetzari esker.

UGT eta CCOO sindikatuak kalitatezko enplegu barik ezin daitekeela enpleguaren berreskurapenik gertatu nabarmendu zuten atzo, Bilbon egindako manifestazioan.



Tratu txarren biktimei arreta espezializatuagoa emango diete

Hitzarmena sinatu dute Aldundiak, Amankomunazgoak eta Berrizko Udalak

> MARKEL ONAINDIA

Bizkaiko Foru Aldundia arduratuko da aurrerantzean tratatu txarren biktimei eskaintzen zaien zerbitzu psikologikoz. Amankomunazgoak eta Berrizko Udalak orain arte garatutakoagaz alderatuz gero, zerbitzu espezializatuagoa, profesionalagoa eta sakonagoa izango dela azaldu du Oskar Zarrabeitiak. Amankomunazgoko presidenteagaz batera Orlan Isoird Berrizko alkateak eta Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako diputatuak aurkeztu zuten ekimena astelehenean,

hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

Ardanzak adierazi zuen indarkeria matxista sufritzen dutenei arreta hurbiletik ematea dela euren helburua: “Kontziente gara oso bakarrik daudela”. Gainera, zerbitzura hurreratzea kostatzen zaiela esan zuen. Hitzordua hartzeko deitzen dutenen %25 ez dira zitara agertzen.

Iaz 25 kasu aztertu zituzten Durangaldean, eta horietatik hamahiru berriak izan ziren. Bizkaian, guztira, 1.164 emakume hartu zituzten; 625 joan ziren lehenengoz. Tratu

txarrak denbora luzean jasaten dutenak izaten dira normalean; hamar urteko indarkeria da batez bestekoa.

Durangoko Galtzaretan, Gizarte Zerbitzuen eraikinean egongo dira astelehenean – goizetan, 10:00etatik 14:30era eta arratsaldetan, 15:00etatik 17:30era – eta eguaztenetan – goizeko 08:00etatik arratsaldeko 15:00etara –. Biktimek euren herrietako gizarte zerbitzuen sailetan eskatu behar dute zita lehenik, eta handik bideratuko dute kasua.



Isoird, Ardanza eta Zarrabeitia hitzarmena sinatzen.

A. Urreta
podólogo

• Oinetako patologiak
• Neurria egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214/06

MAPFRE

Jabier Oruna - Idoia Izurieta
Bulego berria Berrizen!

Geltoki kalea, 9 · Berriz 48240
94 498 41 90 · forunaa@mapfre.com

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

> IURRETA

Orobiogoitiako instalazioak herrira zabalduko dituzte

Iurretarrekin ikastetxeko kirol instalazioak eta areto nagusia erabili ahalko dituzte



Eguaztenez, hitzarmena sinatzen, Iñaki Totorikaguena alkatea eta Jokin Rodríguez de la Fuente, ikastetxeko zuzendaria.

> AMAIA UGALDE

Maiztegi eskolako instalazioekin batera, “Iurretako parkea balitz moduan”, Juan Orobiogoitiako bi saskibaloia kantxak eta arteo-futbol zelaia herrira zabalik egongo dira aurrerantzean. Udalak eta Juan Orobiogoitia ikastetxeak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, eskolaz kanpoko orduetan instalazioak herritarren esku egon daitezen.

Kanpoko instalazioez gainera, ikastetxeko kiroldegia, areto nagusia eta gelak ere herritarren esku egongo dira.

Iñaki Totorikaguena alkateak eta Jokin Rodríguez de la Fuente Orobiogoitiako zuzendariak sinatu dute hitzarmena.

Aretoak eta gelak erabili ahal izateko eskari orriak bete behar dira, eta kanpoko instalazioetan ibiltzea, berriz, librea izango

da. Espazioa zabalik uztearen truke, Iurretako Udalak 500 euroko kanona ordainduko dio ikastetxeari, eta mantentze lanak eta euren gastuak bere gain hartuko ditu udalak. Kanpoko instalazioei dagokienez, udaltzainek zabaltu eta itxiko dituzte ateak. Aste barruan, eskolak amaitzerakoan, 20:00ak arte egongo dira zabalik, eta asteburuetan 10:00etatik 20:00etara.

> OTXANDIO

Udalekuetan hilaren 16ra arte eman daiteke izena

Ekainaren 30etik uztailaren 11ra dira udalekuak

> JOSEBA DERTEANO

Txatxilipurdi elkarteak, udalagaz eta guraso elkarteagaz batera, udaleku irekiak eskainiko ditu ekainaren 30etik uztailaren 11ra. Udaleku horiek 3 eta 12 urte arteko gaztetxoek zuzenduta egongo dira eta askotariko ekintzak egingo dituzte goizez: 10:00etatik 13:00etara.

Izen-emate epea maiatzaren 16ra arte dago irekita. Otxandion erroldatuta daudenek 53 euro ordaindu beharko dute udalekuetan parte hartzearen

truke, eta gainontzekoek 74,25 euro. Interesatuta dagoenak ludotekan eman behar du izena astelehenetik egunera, 17:00etatik 19:00etara. Dokumentu bi aurkeztu beharko dira bertan; izen-ematearen fitxa eta kuotaren ordainagiria. Izen-emateak gauzatzeko dokumentu bi horiek aurkeztea beharrezkoa dela jakinarazi dute. Ondoren, taldeak antolatzen dituztenean, udalekuei buruzko xehetasunak emateko batzarrera deituko dituzte gurasoak.

Santa Maña jaietarako kartela aurkezteko epea hilaren 28ra arte

> JOSEBA DERTEANO

Urtero legeaz, Otxandioko Udalak santamañetako kartel lehiaketa abiatu du. Arduradunek jakinarazi dutenez, maiatzaren 28a da lanak aurkezteko azken eguna. E-mail bidez bidali daitezke lanak:

jaibatxordea@gmail.com. Kartelak ordenagailuz landuak zein eskuz marraztutakoak izan daitezke. Beti ere, modu batera edo bestera, Santa Maña jaiak islatu beharko dituzte lanek, ondoren, kartel horrek iragarriko dituelako herriko jaiak eta jaietako egitaraua.

Formatuari dagokionez, kartelaren tamainak A3 formatukoa izan beharko du. Kartel lehiaketa irabazten duenak lagun birentzako bazkaria edo afaria izango du sarritzat.

> ABADIÑO

Zelaietako eskolako obren kontratua luzatzea onartu dute

Maiatza barik, abuztua izango dute epemuga

> ITSASO ESTEBAN

Martitzeneko osoko bilkuran onartu zuen Abadiñoko udalbatzak (Abadiñoko Independenteen eta EAJren aldeko botoekin, eta Bilduren abstentzioagaz) Zelaieta herri eskolan egiten diharduten lanen kontratua luzatzea. Abuztura arteko tartea izango du lanak egiten diharduen enpresak obra amaitzeko. Beraz, irailerako prest eta erabilgarri behar dituzten eraikin berriak amaitzeko mugamugan ibiliko dira.

Ez da hau obra honetan atzerapenak gertatzen diren lehengo aldia: otsailerako amaitzekoak ziren, baina maiatzera arte ezingo zutela amaitu iragarri zuen Jose Luis Navarro alkateak urtarrean. Atzerapenagaz amaitu zuten dagoeneko erabilgarri dagoen jolastokiko aterpea ere.

“Obra inoizko martxarik onenean doa orain, eta enpresari eskatu duen luzapena emanez gero, irailerako amaituta egon-

go da”, azpimarratu zuen udalbatzarrean, Navarro alkateak.

Oposizioak, aldiz, AI taldeko udal gobernuaren jokabidea kritikatu zuen. Saioa Zuazubizkar Bilduko zinegotziak adierazi zuen obra “urgentziakoa” dela, eta horregatik abstenitu direla, kontra bozkatu beharrean. “Baina neurriak lehenago hartu behar ziren”, kritikatu zuen Bilduk. Atzerapenak eta aldaketek proiektua kaltetu dezaketela azpimarratu zuen Bilduk. “Obrak amaitzeko enpresak eskatzen duen denbora emango dugun edo ez erabakitzen gabilta orain”, erantzun zuen Navarro alkateak, “proiektuan aldaketarik egin behar den ala ez beste momentu batean eztabaidatuko dugu”.

Irailerako obra amaituta edukitzea premiazkoa dela, eta luzapena egin ezean kaltetuen Abadiño izango dela azpimarratu zuen Eneko Etxebarria jeltzaileak. “Denok egin behar genuke autokritika”, esan zuen.

Errotan zein mediatekan eman daiteke izena udalekuetarako

> I.E.

Maiatzaren 9ra arte dago aukera Abadiñoko Udalak 3 eta 16 urte arteko umeentzako antolatu dituen udalekuetan izena emateko. Errota kultur etxean eta mediatekan eman daiteke izena.

Udalak adierazi duenez, “ekintza ludikoak euskaraz” egingo dituzte izena ematen duten umeek ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 11n amaituko diren udalekuotan. Adinaren arabera banaturiko taldeetan egongo dira; ludoteka antolatuko dute 3 eta 5 urte artekoentzat, 6 eta 9 urte artekoekin iteerrak eta tailerrak egingo dituzte, eta 10 eta 16 urte artekoek hainbat tailer eta kirol egingo dituzte.

3 eta 9 urte artekoen udalekuak Abadiñon erroldatutakoek daude zuzenduta, eta 60 eurokoa da matrikularen prezioa; Abadiñon erroldatutako 10 eta 16 urtekoen artekoen matrikula, aldiz, 70 eurokoa da (90ekoa beste herri batzuetako umeentzat). Deskontuak izango dituzte, besteak beste, familia ugariak edo seme-alaba bat baino gehiagoren izena ematen dutenak.

Alfredo Baeschlin arkitektoaren omenez berbaldia antolatu dute

Baeschlinen semeak, García Esparza irakasleak eta Jose Luis Lizundiak parte hartuko dute hitzaldian

> I.E.

Berbaldia antolatu dute Abadiñon, maiatzaren 9rako, herriko hiribide bati izena ematen dion Alfredo Baeschlin arkitektoaren figura ezagutarazteko eta bere lana goraiatzeko. Doakoa izango da ekitaldia, eta 19:00etan hasiko da, Errota Traña-Matienako kultur etxean.

Baeschlin arkitekto suitzarra hil zela 50 urte bete dira aurretik, eta bere lanari eta bizitzari buruzko azalpenak emango dituzte hitzaldian. Aita bezala arkitektoa den bere semea, Castelloko Jaume I unibertsitateko Juan Antonio García Esparza irakaslea eta Jose Luis Lizundia euskaltzain emeritu abadiñarra izango dira hizlariak.

Aitaren bizitzaz ariko da Baeschlin semea, Juan Antonio García Esparza irakasleak herri arkitekturaz eta nortasunaz egingo du berba, eta Baeschlini lotuta Abadiñon munduan izandako proiektzioa hartuko du Lizundiak berbagai.

Berbaldia aurkezteko udalak komunikabideetara zabaltu duen informazioan esaten denez, Alfredo Baeschlinek urte bi eman zituen Abadiñon bizitzen. Leku askotan jardun zuen landetxeen inguru-

Besteak beste, Durangaldeko baserrietxeen tipologia aztertutako Alfredo Baeschlinek

ruko azterketa bertatik bertara egiten: Galizian, Eivissan, Valentzian... Euskal Herriko arkitektura tradizionala ikeritzeko, Durangaldeko baserrietxeen tipologia sakonean aztertutako besteak beste. Oharrean azaltzen denez, “beste lan batzuen artean, Ajuria Enea jauregia diseinatu eta euskal baserriari buruzko liburua argitaratu zuen”.


BERRIZ SUSA


Berrizkoentzat zein kanpokoentzat

Mota	B	B	B	A	B
Margarita Maturana					
Ataria eta pisua	20 behea A	18 behea A	14 - 1.A	10 - 3.E	20 - 3.A
Jabea	Berriz SUSA	Berriz SUSA	Berriz SUSA	Berriz SUSA	Berriz SUSA
Salmenta prezioa	112.821,75 €	112.821,75 €	128.400,95 €	100.224,85 €	125.604,28 €

Mota	A	B	A
Margarita Maturana			
Ataria eta pisua	18 - 2.E	12 - 2.B	18 - 1.E
Jabea	Jabe pribatua	Jabe pribatua	Jabe pribatua
Salmenta prezioa	100.142,90 €	128.459,69 €	101.729,10 €

Motak:

A: Logela bat

B: Bi logela

Garajea eta trastelekua barne

ESKABIDEAK :

Epea eta lekua:

Maiatzaren 9ra arte
Berrizko Udalaren bulegoetan

Argitaratuta:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2014ko apirilaren 11n


946 824 036 • hirigintza@berriz.org • www.berriz.org

> BERRIZ

Andre etorkinen errealitatea, tailerretan berbagai

> AMAIA UGALDE

Hasi dute Berrizen aurtengo Emakumeen jabekuntza Eskola. Sei gai jorratuko dituzte, eta legee lotutako gaiekin hasi dute lehen tailerra. Abortuaren legearen aurreproiektua izan zuten berbagai lehen egunean, eta maiatzaren 8an justizia aholkularitzari buruz arituko dira.

Maiatzaren 22an izango dute hurrengo saioa, Berrizko emakume etorkinen gainean. Ekainaren 5ean, berriz, etxeko langileen lan eskubideak izango dituzte berbagai. Emozioen kudeaketa, gazteei bideratutako bikote hartu-emanen gaineko tailerra eta indarkeria matxista ere landuko dituzte tailerrotan.

Izena emateko orriak udaletxean eta www.berriz.org webgunean daude. Informazio gehiagorako: gizarte2@berriz.org.

> MALLABIA

Ekintzaileentzako lokal bi egokitu ditu Mallabiko Udalak

Tokiko ekonomiaren garapenean lagundu gura du

> JONE GUENETXEA

Ekintzaileei zuzendutako lokal bi egokitzea erabaki du udalak, herrian hainbat zerbitzu falta direla ikusita. Herrian ez dago ile apaindegirik edo estetika zentrorik, podologia zentrorik edo fisioterapeutarik. Mota horretako enpresei erraztasunak eman gura dizkio udalak, tokiko ekonomiaren garapenean urratsak emanda. “Lanik gabe dauden gazteak euren negozioa

martxan jartzera animatu gura ditugu”, adierazi du Mila Mondragon Mallabiko alkateak. Medikuzentzako obrak aprobetxatu ditu udalak lokal bi horiek egokitzeko. Martxoan ekin zieten lanei, eta udal arduradunek azaldu dutenez, obrak bukatzeaz daude. 80.000 euroko inbertsioa egin du udalak enplegua sustatzeko proiektu honetan.

Orain, udalak pleguak prestatuko ditu eta interesa dutenek beraien proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte. Eskatera handia bada, aukeraketa egingo dute eta lau zapabost urterako negozioa bertan eduki ahal izango dute. Informazio gehiago gura dutenek udaletxean datu gehiago eskatu ditzakete.

Udalak pleguak prestatuko ditu, eta proposamenak aurkeztu ahal izango dira



Bi lokalak mediku kontsultategiaren ondoan daude.

> ELORRIO

Zengotitabengoa babestu dute Lisboan

Elkartasun martxa egin zuten Elorriotik Lisboara

> MARKEL ONAINDIA

Andoni Zengotitabengoa pre-soari babesa agertu zioten joan zen asteburuan Lisboan (Portugal), elkartasun martxa baten bidez. Elorriotik autobus bi irten ziren Portugalera, “Andonik pairatzen dituen eskubide urraketak salatuz”. Segurtasun handiko kartzela batean dago,

bakartuta eta eguneko 22 ordu ziegan ematen ditu. Lagunek ezin dute bisitatu, eta alabek urtean behin bakarrik besarkatu dezakete. Bere bizi-baldintzak hobetzea eskatzeko, sinadurak batu zituzten Amnistia Internazionallean eta Arartekoan entregatzeko, eta kontzentrazioa egin zuten Lisboan bertan.



Kontzentrazioa egin zuten Lisboako Rossio plazan.

Berbaldi zikloa hasiko du Kainaberak

> M.O.

Datorren egunean, maiatzaren 8an, hasiko da Kainabera Gobernuz Kanpoko Erakundeak urtero antolatzen duen berbaldi zikloa. *Gaurko munduari begirada bat* izenburupean gertuko dira hitzaldiak. Gustave Kiansumba izango da lehenen-

go gonbidatua. Europarako bidaia egitea erabakitzen dute hainbat afrikarrek, eta Kiansumbak berak ere bidaia hori bera egin zuen Kongotik Bilbora. Gizarte ekintzailea da.

Berbaldi guztiak 19:30ean hasiko dira Iturrin. 15ean Siriako gatazkan hedabideek duten papera aztertuko dute; 22koa Elorrixagaz batera prestatu dute, eta Afrikako baliabide naturalen ingurukoa izango da; amaitzeko, 29an, Caritasek pobrezia-aren txostena aurkeztuko du.

Aste Santuko egunetan 300 lagunek bisitatu dute Elorrio

> M.O.

“Elorrioko Udalak udalerrira turismo jomuga lehiakor gisa sustatzeko egin duen apustu garbia bere fruituak ematen hasi da”. Horrela baloratu dute udal ordezkariak Aste Santuan egondako turismo dinamika. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, 300 lagun baino gehiago hurreratu dira egun horietan Elorrio ezagutzera. Gehienak Euskal Herrikoak izan dira, baina Kataluniatik, Madrildik, Andaluziatik eta Kantabriatik ere etorri dira.

Argiñetako nekropolia, Alde Zaharra eta audiogidagaz eginitako ibilaldiak izan dira turisten arreta gehien erakarri dutenak. Audiogida katalanez erabili dutenen kopurua hazi egin dela nabarmendu dute arduradunek oharrean.

Bestalde, *Basilikaren sekretuak* izeneko bisitetan plaza guztiak agortu dira. Talde txikitik banatuta egin dituzte bisitak, eta elizaren artxibategian dagoen erakusketa asko gustatu ei zaie bisitariei.

Sustapenagaz jarraitu

Datuak ikusita, udalak turismoa sustatzen jarraitzeko asmoa agertu du. “Enplegua eta aberastasuna sortzeko orduan dinamismo eta garrantzi gehien duen jarduera ekonomikoetako bat da”, azaldu dute.

> ZALDIBAR

Hiri Antolamendurako Plana garatzea lehentasuna izango da aurrekontuetan

2014ko aurrekontuak onartuta, plana garatzera bideratu dute udal inbertsiorik handiena

> ITSASO ESTEBAN

Bilduko sei zinegotzien aldeko botoekin egin du aurrera Zaldibarko Udalaren 2014rako aurrekontuak. Gobernu taldearen proposamenaren kontra egin zuten PSE-EEko bi zinegotziek asteleheneko udalbatzarrean, eta abstenitu egin ziren EAJko eta PPko ordezkariak.

Aitor Arizmendiarreta Ogasun zinegotziak azaldu duenez, aurreko urteetako aurrekontuen segida dira 2014koak: “Gastuari eusten eta kostuak merkatzen saiatu gara”. Arizmendiarretak azpimarratu zuen, diru-sarreraren atalari dagokionez, aurtengo Udalkutxaren aldetik 100.000 euro baino gehiago jasoko dituela Zaldibarko Udalak.

Urte honetarako Zaldibarko Udalak aurreikusi dituen gastuen atalean, aldiz, inbertsiorik handiena (142.000 eurokoa) Hiri Antolamendurako Plan Orokorren berrikuspenera aurrera ateratzera bideratuko dute.

Bestalde, gobernu taldeak joan zen asteleheneko ezohiko udalbatzarrean azpimarratu zuenez, udal instalazio guztietako eta herriko kaleetako argiteria kontsumoa murrizteko bideak aurkitzeko azterketa bat

egin dute. Aurrekontuan jasotzen denez, udalak 16.000 euro inbertituko ditu azterketa hori egitera. Efizientzia energetikoa hobetzea da ekimen honen helburua.

Lurpeko zaborrontzietan gehiago ez inbertitzeko gobernu taldeak egin duen hautua aipatu zuen Nerea Garitagoitia EAJko zinegotziak gobernuaren aurrekontu proposamena ez babesteko bere alderdiaren hautua arrazoitzeko: “Abstenituko gara, batez ere, astakeria handia iruditzen zaigulako 15.000 euroko gastu bat ekiditeko lurpeko zaborrontziak bertan behera uztea. Aurreztu beharra dago, baina ez horretan”.

Javier Tera PSE-EEko zinegotziak ere esan zuen: “Zentzugabea deritzogu lurpeko zaborrontzien zerbitzua kendu, eta, aldi berean, udalak 100.000 euroko diru-laguntzak banatzen jarraitzeri. Aurrekontu honi egin diogun zuzenketa bakarria izan da hori, eta gobernuak ez du aintzat hartu ere egin”.

Arantza Baigorri alkateak erantzun zuen udalarentzat dirutza dela lurpeko zaborrontziak mantentzea, eta lurgaineko mantentzeak, aldiz, udalari ez dakarkiela kosturik.

> DURANGO

Inarri laguntzeko elkartasun azoka egingo dute ikastolan

Ezohiko gaixotasun bat dauka Inar umeak

> MARKEL ONAINDIA

Gaixotasun arraroa edo ezohikoa daukan ume txiki bat da Inar. Syndromearen izena 4p-da, eta Wolf Hirschhorn lez ere ezagutzen da, aurkitu zuten medikuei erreferentzia eginez. Laugarren kromosomaren zati bat falta denean sortzen da, eta hainbat ondorio dakartza: ezintasun intelektuala, berba egiteko ezintasuna kasu askotan, arazo neurologikoak, konbultsio epileptikoak, hazteko arazoak edota elikatzeko zailtasunak. Batez beste, 50.000 pertsonatik batek eduki ohi du sindrome hau. Kurutziaga ikastolako 2. DBHko ikasleek Inarren egoeraren berri eduki zuten, eta berari laguntzeko elkartasun azoka antolatu dute

maiatzaren 10erako. Ikasleak eta herritarrak hurreratzera animatu dituzte.

Produktuak dohaintzan jaso eta azokan ipiniko dituzte salgai. 1.000 ikasle inguru dabilta ikastolan, eta, adibidez, liburuak, jostailuak eta bizikletak eroateko deia egin diete sustaizaleek. Gainera, herritarrek ere lagundu ahaliko dute; gauzak batzeko, idazkaritzaren aurrean kutxa batzuk ipini dituzte. Azokan ateratako irabaziaz Inarrentzat eta bere familiarentzat izango dira. Izan ere, horrelako gaixotasunei aurre egiteko eta ikertzeko dirua behar izaten da.

Famatuen babes

Azokak indarra hartu du ekimenari hasiera eman ziotenetik.



Elkartasun azoka antolatu duten 2. DBHko ikasleak.

Goizez eta arratsalde egongo da zabalik, eta jolasak eta puzgarriak ere ipiniko dituzte

Horren adibide da pertsona famatuek emandako babes, kamisetak eta sorkuntza lanak oparitu: Aimar Olaizola, Kirmen Uribe, Bizkarra txirrindulariak, Zigor Iturrieta korrikalaria, Zea Mays taldea, Iraia Iturregi eta Ander Herrera Athleticeko jokalaririk...

Hurrengo zapatuko azoka 10:30ean hasiko da Kurutziagan bertan. Goizez eta arratsalde egongo da zabalik, eta jolasak eta puzgarriak ere ipiniko dituzte. 17:30ean sokatira erakustaldia eskainiko dute, eta Irrien Lagunekin emango diote amaiera Inarren aldeko jaialdiari.

Udal etxebizitza politika kritikatu du EH Bilduk

Faustegoienan prentsurrekoa eman du EH Bilduk

> M.O.

“Etxebizitza eskubidea bermatu beharrean, dirua atera gura dute”. EAJren etxebizitza politika kritikatu du EH Bilduk –Bildu eta Aralar–, eta PSE-EEren eta

PPren kontra ere egin du, Faustegoienako proiektua babestearren. Hain zuzen ere, Faustegoienako lursailean eman zuen prentsurrekoa koalizioak astlehenean. “Udal etxebizitza



Bilduko eta Aralarreko zenbait zinegotzi, Faustegoienan.

politikaren porrota hoberen islatzen duen lekuan”.

Faustegoienan babeseko 118 etxe eraikitzea aurreikusi zuen udalak. Baina bankuek maileguak lortzeko ezarritako baldintzen ondorioz, ez zen nahikoa eskatzaile agertu, eta proiektua bitan zatitu zuten. Lehenengo fasean 70 etxe zozkatu zituzten, 58 jabetzan eta 12 alokairuan. Akats informatiko baten erruz zozketa birritan egin ostean, adjudikatzailerik ez zituzten bankuen baldintzak betetzen. Egoera horretan, promozioa Bizkaia osora zabaldu zuten urtarilean. Izan ere, gutxienez jabetzako 46 etxe eman behar dituzte proiektuak aurrera egin ahal izateko. EH Bilduren arabera, dagoeneko 86 lagunek egin diote uko etxeari, eta hogeitabat inguru bakarrik onartu dituzte.

EH Bilduren iritziz, EAJk, PSE-EEK eta PPK udalerako etekina atera gura dute, etxeak jabetzan emanda. Horren aurrean, etxe guztiak alokairuan egotea gura dute, “justuena izateaz gain, hainbat herritarrentzat aukera bakarra delako”.

Txakurren ordenantza berrituko dute udalean

Aho batez onartu du udalak txakur jabeen mozioa

> M.O.

Txakurren udal ordenantza berritzen hasiko da udala, eta prozesu horretarako herritarrek osatutako mahai bat egongo da. Duela hiru aste udaletxe parean protesta egin zuten hainbat lagunek Durangoko herritar taldeak deituta, eta eurek aurkeztu zuten mozioa martitzenean Bilduren bidez. Aho batez onartu zuen udalbatzak. Txakurren jabe horiek euren maskotentzako gune libreak eta ordutegiak eskatzen dituzte, legearen arabera, txakurrek ere ariketa fisikoa egiteko eskubidea daukate eta.

Ordenantza eraberritu artean udal batzordean zehaztuko dute behin-behineko erabilera. Orain arte egon izan diren guneak proposatu dituzte erabiltzaileek, eta ordutegia ere bai: 08:00etatik 12:00etara eta 20:00etatik 23:00etara. Beraz, ba-

tzordean aztertuko dute behin-behineko soluzio hori.

Mozioaz aparte, erabiltzaile batek berba hartu zuen batza-

Ordenantza eraberritu artean udal batzordean zehaztuko dute behin-behineko erabilera

rraren amaieran. “Duela hiru hilabete aurkeztu genuen proposamena, eta geroztik ez dugu erantzun politikorik jaso, baina jazarpena bai”. Gaia arautu bitartean kezka daukate: “Zer da gure txakurragaz egin ahal duguna? Zein da zuen konpromisoa gure egoerarekiko?”. Gaia batzordean landuko dela esan zion Aitziber Irigoras alkateak.

Inarren aldeko laguntasun azoka

Wolf Hirschhorn sindromea

MAIATZAK 10

Goizeko 10:30ean
Laguntasun azoka
Umeentzako jolasak
Puzgarriak

Arratsaldean (Sarrera 5€)
Puzgarriak
17:30 Sokatira erakustaldia
19:30 Irrien lagunak ikuskizuna:
Ane eta Piratekin parrandan!

KURUTZIAGA
IKASTOLA

Kurutziaga
ikastolan

Ateratzen den diru guztia Inarren
familiari laguntzeko izango da

> DURANGO

Zinegotzien soldatak eta dietak argitaratzea erabaki dute

Politikariak eta alderdiek zenbat kobratzen duten jakin ahalko dute herritarrek, eta elkarteak eta enpresek udalarengandik zenbat jasotzen duten ere bai



Martitzeneko udalbatzarrean kargudunen soldatak argitaratzea erabaki zuten.

> MARKEL ONAINDIA

Hemendik aurrera durangar guztiek jakin ahal izango dute zenbat kobratzen duten alka-teak, zinegotziek eta alderdi politikoek. Izan ere, jasotzen dituzten soldatak eta dietak argitaratzea erabaki zuten martitzeneko udalbatzarrean. Horretaz gainera, herriko elkarteak eta enpresek udalarengandik

jasotzen dituzten ekarpenak ere publiko egingo dira.

Gaia Bilduk eta Aralarrek eroan zuten batzarrera. Baina euren proposamena politikarienta bakarrik publikatzea zen. "Herritarrei informazioa zor diegu", esan zuen Eider Uribek (Bildu). Hori barik, PSE-EEk aurkeztutako mozio alternatiboa onartu zen EAJ-

ren babesagaz. Dani Maeztuk (Aralar) nahasmena sortu gura izatea leporatu zion PSE-EEri, baina Pilar Riosek (PSE-EE) ezeztatu egin zuen hori. Bere ustez, gardentasun handiagogaz konfiantza eragin beharko litzateke. Maezturen iritziz, ezin dira alderatu behargin baten eta kargudun baten soldatak. Goiztidi Diazek (EAJ) gogoratu zuen

Durango Eudel udalen sarean dagoela, eta EAJk gardentasunaren alde bozkatuko zuela. Juan José Gastañazatorreren (PP) arabera, gardentasuna era orokor batean landuko duen egitasmo bat behar da.

Soldaten filtrazioa

Duela aste batzuk politikarien soldatak filtratu zituen hedabide batek. Bertan esaten zen Bildu eta Aralar zirela gehien kobratzen zutenak. Hori gezurtatu eta haserre agertu zuten talde biek. "Ematen diren datuak, behintzat, onak izan daitezela", esan zuen Uribek. Maeztuk jarraitu zuen EAJko gobernu taldeari zuzenduta: "Ezin dena onartu da etxe honetatik desinformazioa zabaltzea maltzurkeriagaz". Adierazi zuen bere alderdikide Iker Urkizak ez daroatzala zazpi urte liberatuta, hiru baizik, eta kobratu duen dirua ez dela 37.000 euro, 33.000 baizik. "Liberazioaren alde gaudela, baina argi daukagu kantitateak larregi direla. Horregatik ez dugu hartu liberazio osorik".

Jarraian, alderdiek 2013an soldatekin, dietekin eta ekarpenekin jasotako zenbatekoa bota zuen Maeztuk. Bere hitzetan, EAJk 251.000 jaso zuen, Bilduk 15.000 (ez zeukan liberaturik orain arte), PSE-EEk 83.000, PPK 64.000 eta Aralarrek 47.000.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar

**Txakurren ordenantza**

Ekologistatzat dut nire burua eta horregatik saiatzen naiz mundua ikuspegi giza-zentrista batetik ez ikusten. Gizakiok baikara inguruan daukagun guztiari kalte gehien sortarazi diogunok. Baita gure buruari ere. Kostatzen zait. Azken finean, ni ere gizaki bat naiz eta.

Gogoeta hau azken egunetan Durangon bolo-bolo dabilen txakurren gaiaren harira dator. Uste baitut, gai hori giza-zentristotik aztertu dela udalaren aldetik, gaur egun indarrean dagoen ordenantza inguruan egindako interpretazioa ikusita. Ordenantzak, testuak direlako, gizakiaren interpretaziora zabalik dauden testuak. Gure ordenantza, animaliak babesteko EAEn dagoen lege baten garapena da. Eta bere artikulatua jasotzen duen bezala, txakurren jabeek animaliak osasuntsu eta egotera onean mantentzen dituztela bermatzeko da ordenantza.

Tira, zaila egiten zait ikustea hori zelan bermatu daitekeen, abere bat egun osoan etxean edukita eta kalera ateratzen duzunean, beti eta edozein lekutan, lotuta eduki behar baduzu. Hori da udal agintariak eta polizia municipalak agintariak egin duten interpretazioa. Ordenantza hori irakurrita, badago aukera txakurren ongizatearen eta gizakien ongizatearen artean oreka bat topatzeko. Argi daukat txakurren jabe guztiak ez direla santuak eta, era berean, polizia municipal guztiak ez direla deabruak. Baina ez dut ulertzen zelan gertatu daitekeen txakur baten jabea isuna jartzea, bere 5 hilabeteko txakurkumea parke batean aske egoteagatik.

Herri honetan gobernatzen gaituztenek eta euren aginduak betearazten dituztenek sekulako erraztasuna dute arazo bat ez dagoen lekuan sekulako iskanbila sortzeko.

> GARAI

Ur sarea hobetuko dute aurtengo inbertsioekin

415.000 euro dauzkate gastu eta inbertsioetarako



Astelehenean egin zuten udal aurrekontua onartzeko batzarra.

> M.O.

2014rako udal aurrekontua aho batez onartu zuten asteleheneko udalbatzarrean. 415.000 euro bideratu dituzte gastuetarako eta inbertsioetarako, eta diru gehien ur hornikuntzako sarea hobetzen inbertituko dute. 40.000 euro gorde dituzte; adibidez, Elizabarritik San Migueleko biltegira doan hodia konpontzeko. Azken urteetan auzobideak konpontzen egin dituzte batez ere ahaleginak, eta orain ur sarean ikusten dute premia.

Pilotalekuan ere egingo dituzte hobekuntzak: 20.000 euro erabiliko dituzte argiak aldatzeko. Herrigunean dauden foku batzuk ere aldatuko dituzte 6.000 eurogarekin; zaharrak kendu eta LED sistemakoak ipiniko dituzte. Aurretik, kaleko faroletako

argia aldatu zuen udalak, zaharrak kendu eta kontsumo baxuko LED sistemakoak ezartzeko.

Obrarako, tasak gora

Ur sarearen obra egiteko, Al-dundiaren diru-laguntza eskuratu gura du udalak. Laguntza hori eman izan dutenean gutxieneko batzuk eskatu dituzte, eta, horregatik, urari eta estolderiari dagozkien tasak igo ditu. Horiek dira aurtengo tasetan egondako igoera bakarrak.

40.000 euro gorde dituzte; adibidez, Elizabarritik San Migueleko biltegitako hodia konpontzeko

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saLtsan.com

> ATXONDO

Elorriorako bidegorria ixteko prest dago udala

Desjabetze prozeduran Aldundiak urratsak eman ezik, obrako langileei itxi egingo diete bidegorria



Apatatik Elorriora doan bidegorria.

>JOSEBA DERTEANO

Gerediaga-Beasain errepideko lanek zuzenean eragiten diote Apatatik Elorriorantz doan bidegorriari. Gobernu taldeak dio lurzati hori udalarena dela eta desjabetze espedientea gauzatu barik dagoela. Aldundiaren aldetik ez duenez erantzunik jasotzen, gobernu taldea bidegorria zigilatzeke prest dago, txosten juridiko baten sostenguagaz.

Obretako langile eta makinak bertatik igarotzen dira gaur egun. Bizkaiko Foru Aldundiak eremu horretako lurren desjabetze prozedurak eginda ditu jabe pribatuekin, baina ez udalagaz. Izan ere, udala “ez dago batere ados” Aldundiaren proposamenekin. Batetik, udalak zazpi partzela ditu eremu horretan eta denak desjabetzearen truke egin dieten eskaintza ekonomikoa beste toki batzuetan erabili dituzten balioetatik “oso behera” dago, Rosa Elizburu alkatearen

esanetan. Bestetik, Aldundiak dio bidegorriak berak hartzen duen lurzatiaren truke ez dietela ezer emango, jabetza publikokoa delako. Udalak dio erabilera publikoa duela, baina jabetza udalarena dela, eta hori frogatzeko agiriak dituela.

Luzaroan dabiltzanez tirabiran, eta Aldundiaren aldetik egoera konpontzeko prestutasunik ez dutenez ikusi, udalak adierazi dio informe juridiko bat osatu, eta bidegorria berreskuratzeko prest dagoela, txosten horretan sostengaturik. Aldundiari jakinaraziko diote bidegorria zigilatu egingo dutela eta obretako inor ezingo dela barrura sartu, oinezkoak salbu. Udalbatzarrean erabaki zuten bide hori hartzea Bilduren botoekin; EAJk aurka bozkatu zuen. Aldundiak hamar egun izango ditu erantzuteko. Hartu dezakeen bide bat epaitegietakoa da: administrazioarekiko auzi prozesua.

> MAÑARIA

Hilerriko lur mugimenduari zelan aurre egin aztertu dute

> M.O.

Kanposantuan lur mugimendua gertatu zen, eta arazo horri zelan aurre egin aztertzen ibili da udala. Duela aste bi batzar zabala egin zuten egoeraren berri emateko, eta herritar ugari batu zen bertan. Lur mugimendua hilerriko eremu berrian gertatu zen, eta egoera ona ez denez, hurrengo gorpuak eremu zaharrean lurperatuko dituzte. Horretarako, eremu zaharreko zenbait gorpu atera beharko dituzte datozen hilabeteetan. Endika Jaio

Duela aste bi batzar zabala egin zuten egoeraren berri emateko, eta herritar ugari batu zen

alkateak adierazi du plangintza bat diseinatuko dutela, eta ezer egin aurretik familiekin berba egingo dutela.

Obrarik momentuz ez

Hobitik ateratzeko erabakia nahitaezkoa denez, familiekin ez dute lan horren gastua ordainduko. Kanposantuko nitxo txikietan sartzeko aukera edukiko dute gero.

Jaiok esan du eremu berrian obra bat egin beharko dutela seguruenerik, baina momentuz ez dute garatuko. Horra heltzerako denbora igaroko dela uste du, eta hamar urteko epea aurreikusi du gutxi gorabehera.

> DURANGALDEA ASTEON

Haurreskoletan izena emateko matrikulazio kanpaina martxan da

MATRIKULAZIOA > Maiatzaren 5etik 14ra bitartean zabaldu dute Haurreskoletan izena emateko epea. 2013an eta 2014an jaiotako umeek izena eman ahal izango dute. Arduradunek azaldu dutenez, uztailean arte epea kanpo izena eman ahal izango dute maiatzaren 5etik aurrera jaiotzen direnek. Iurretan, Durangon, Elorrian, Berrizen, Abadiñon (Zelaieta eta Matiena), Zornotzan, Mañarian eta Mallabian daude Haurreskolak Durangaldean.

25. urteurrenerako prestaturiko egitaraua aurkeztuko du Berbarok

AURKEZPENA > Berbaro elkarteak 25 urte bete ditu aurtan, eta urtemuga ospatzeko atonduriko egitaraua aurkeztuko du datorren asteazkenean, maiatzaren 7an. Ekitaldia Durangoko Plateruenean izango da, 19:00etan, eta abagune hori aprobetxatuko dute irudi berria erakusteko. Aurkezpen ekitaldian parte hartuko du, besteak beste, irudi berria egin duen Eider Eibar ilustratzaileak. Musika ere izango da eguazteneko aurkezpen ekitaldian: Gehi Zazpi biolontxelo taldeak joko du. Amaitzeko, luntxa eskainiko diete parte-hartzaileei.

‘Salerosketak be euskeraz’ ekimenaren 10. iPada eman dute

ZOKETA > Durangoko dendetan euskararen erabilera sustatzeko kanpainaren barruko hamargarren zozketa egin dute. Oraingo honetan 131.353 zerbakia izan da saritua. La Botica de Los Perfumes dendan eman dute (Urtxintxa dendan emandako 141.503 zerbakia da ordezkotako zerbakia). Euren erosketak egiterakoan euskara darabiltenen artean tablet informatikoen zozketak egiten dituzte kanpaina honen barruan.

Azkain-Larrun irteera EHEgaz: ‘Muga guztien gainetik euskaraz!’

URTEURRENA > Maiatzaren 10erako antolatu du Euskal Herrian Euskaraz elkarteak mendi irteera nazionala. Azkainetik Larrun mendira egingo dute martxa. *Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe. Muga guztien gainetik euskaraz bizi!* lelopean, jendeari “euskaraz bizitzeko hautu burujabea egiteko” deia luzatu diote. Durangon, Madalenako autobus geltokian egin dute hitzordua 08:15ean, kotxez Lapurdirantz abiatzeko.

Iritzia

G4T pikutara

Errepidea erabiltzen duten kirol probetan aurtan aplikatzen ari diren arautegia ikusita, Bizkaiko Trafikoko Lurralde Bulegoarekin kontaktuan jarri ginen bilera bat egiteko asmoarekin, Garaiko triatlolarien IV. edizioaren antolakuntza horretara moldatu ahal izateko. Apirilaren 15ean bildu ginen [...]. Gehien bat, N-634 errepidearen erabilera murrizten ahalagindu ginen (gure kasuan sei kilometro besterik ez ziren erabiltzen), ordezkotako ibilbideak bilatuz (partaideentzako, ez ibilgailuentzako), trafikoa denbora luzeegi baten eten ez daiten (lasterketaren puntu honetan, lehenengo eta azkenengo partaidearen artean 75 minutu egon daitezke).

Horretaz gain, lasterketa egunerako lan egiteko moduari buruz hitz egin ziguten. [...] Horrela, “ibilbidearen martxan trafiko itxia” araudi berriari jarraituta, eskakizun guztietara moldatu ginen, bildutako guztion arteko elkarlanari esker emaitzak proposatzu,

errepide nagusiak aurretik saihesten zituen 90 kilometroko ibilbidea berriz definituz.

Horri guztiari buruz berba egin ondoren, eta bukatzeaz geundenean, dena ondo ulertu genuela baieztatzeke asmoarekin, ibilbideko puntu bat hartu genuen (Munitibarreko herria agertu zen) eta rutometroa eskuan, hurrengo galdera bota genuen: “Orduan, puntu honetan boluntario bat jarri behar dugu, lasterketaren igarotzeak iraungo duen 58 minutuetan ibilbidearen martxaren norantza sartu nahi duten ibilgailu guztiak geldiaraziz; trafikoa moztuz eta ez trafikoa arautuz”.

Emaitza baiezkotako izan zen, eta horrelako puntuak asko dauzkagu: Bizkaiko geografian galduta dauden ia trafiko gabeko errepidetxoak, inolako salbuespenik barik moztu behar ditugunak.

Legea zorrozki aplikatzeko agindua jaso dugu, eta bulegotik proposatzen duten emaitza guztiak “ibilgailuentzako

bide alternatiboak” proposatzean datza. Horrela, bi herriren arteko ibilbidea egin behar duen ibilgailu batek “kilometro extra” batzuk egin beharko ditu eta horrela izango dela onartzen dugu. Baina ezin duguna onartu da bere base-rritik ortua edo landa 500 metrora duen erabiltzaile bat ordubete geldiaraztea, egia esanda bere begi bistatik igaroko ez den kirol proba bat ospatzen ari delako.

Jon Sarasua
G4T Lasterketa Zuzendaritzaren
eta Garaiko triatloi taldearen izenean



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
AAlderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Iñaki Egaña | Euskal Memoria fundazioko presidentea eta historialaria | Donostia, 1958

“*Borondate politiko sakona behar da frankismoaren itzala gainditzeko*”

Iñaki Egaña historialariak 36ko gerra, frankismoa eta trantsizioa hartu ditu berbagai astelehenean, Zornotzan, emandako hitzaldian. Memoria historikoaren berreskurapenean Euskal Memoria fundazioak egiten duen lana zein den azaldu du



“

Ezagutu dugun kontakizuna garailearen kontakizuna izan da

“

Euskal Memoria ez da oroimen-talde bat, datu talaia bat baizik

> JONE GUENETXEA

Euskal Memoria (EM) fundazioko presidentea zaitugu. Noiz eta zelan sortu zen fundazioa?

Duela bost urte sortu zen hainbat sektoretako partaideekin: kulturaren, historiaren, sindikalismoaren, oroimenaren eta giza eskubideen arloan lanean aritzen ziren kideekin. Eurek osatu zuten lehenengo egitura: patronatu bat sortu zuten eta bazkideak lortu zituzten. Milaka lagunek osatzen dute Euskal Memoria egun.

Zeintzuk dira fundazioaren helburuak? Euskal Memoria ez da oroimen-talde bat, datu talaia bat baizik. EMk zerbitzu publikoa du helburu, gatazkaren ondorioak aztertu eta, ahal den neurrian, egon den fase politiko bakoitzeko biktimen datuak, izenak, egoerak, kontakizunak eta biografiak azaldu nahi ditu, besteak beste; arloa edozein izanda ere, giza eskubideen urraketatik sortutako biktimen datuak. Beraz, EM ez da agente politikoa, dokumentazio gunea baizik.

Zein proiektu jarri dituzue martxan? Lehenengoa eta nabarmenena, orain

arte, ikerketarena izan da. Urtero, gai bat aukeratu, eta txosten sakon bat argitaratzen dugu horren inguruan, herriz herriko auzolanaren bidez. Bost gai izan dira urte hauetan aukeratutakoak: Gernikako seme-alabak, frankismoa, euskara, tortura eta, aurtengoa, gerra zikina. Datorren urtera begira deserriaren inguruan ari gara lanean. Bigarren proiektua da giza eskubideen urraketei buruz pixkanaka-pixkanaka osatzen ari garen datu-basea eskatutako talde eta erakundeen esku jartzea. Gai zehatzei buruz, herri batek sufritu dituen giza eskubideen urraketei buruz, esaterako. Hirugarren egitasmoa, eta ziur aski potoloena, dokumentazio zentroa sortzearena da. Publikoa izango da, abian dago eta aurtan amaitu nahiko genuke.

Jendearen aldetik zelako erantzuna jasoz duzue?

Izugarri ona. Horri esker, gu jaio aurretik egindako lanari esker eta, bereziki, guk egindako ikerketen ondorioz, gaur egun esan dezakegu laster ezagutuko dugula, osotasunean, zeintzuk izan diren Euskal Herriko giza eskubideen urraketak az-

ken 100 urteetan; sufrimenduaren mapa osatuko dugu.

Argentinan martxan jarri dute epaiketa bat. Bide horri buruz zer iritzi duzu?

Dinamika bat jarri da abian. Orain arte itxi ez diren gure historiako pasarteak landu egin behar dira. Bistan da justizia eta egia oraindik ez direla gune horietara heldu. Neurri apal baina duin batean, erreparazioa herriaren eskutik heldu zaigu, baina, esaterako, egia oraindik ez da zabaldu. Ezagutu dugun kontakizuna garailearen kontakizuna izan da, bereziki 36ko gerraren eta frankismoaren garaikoa. Beraz, ez dira fidagarriak izan. Herriak egia behar du eta neurri berean justizia. Hortaz, ildo horietako prozesuak dira azken urteetan herriz herri abian jarri diren dinamikak. Herria ari da egiten, beste arlo batzuetan egin duen bezala, auzolana bizkarrean jarrita, erakundeek egin ez duten lana.

Oroimen historikoaren berreskurapenean, zein beste pauso eman beharko lirake? Asko gelditzen da egiteko? Gizarteratu. Sozializatu. Gezurra diru-

dien arren, egiaren bila ari gara oraindik, zenbait kasutan hainbeste urte pasa ondoren. Etengabeko ibilbidea da; ez du amaierarik. Gehiago edo gutxiago jakingo dugu, baina inoiz ez da nahikoa izango. Baztertuak, ezkutatuak edo ezezagunak izan diren pasarteak eta protagonistak azalduko dira nonahi, eta lekukoen papeira betetzen badugu, beti egongo da lana. Historia eta berreskurapena ez delako lerro nagusiekin amaitzen. Garrantzi bera ematen diegulako pertsona guztiei, ezagunagoak edo ezezagunagoak izan arren. Mikro-istorioek laguntzen digute gertatutakoa ulertzen. Horregatik, herri dinamikak indar handia dute. Gertutasunak sinesgarritasuna ematen dio kontakizunari eta, bide batez, sozializazioaren arloan gauzak errazten dira.

Frankismoak zelako eragina izan zuen Euskal Herrian?

Uste duguna baino eragin handiagoa izan zuen. Giza eskubideen urraketa erraldoi bat izan zen: milaka deserriratu, exekutatatu, preso... Era guztietako urraketak eta beldurrak. Aztarnak gaur egunera arte heldu dira. Gizartea kutsatu egin zen eta kutsadura astintzeko denbora behar da. Borontate politiko sakona behar da frankismoaren itzala gainditzeko.

Trantsizioa goraipatzen dute askok. Goraipatua izan behar dela deritzozu, edo argi-ilunak izan zituen?

Kontakizun ugaritan azaltzen den terminoa da. Beraz, onartutako hitza. Ezaugarrietan sortzen da eztabaida, akaso baita epeei buruz ere. Trantsizioa egon zela bistan da. Nolakoa? Alde ilun nabarmenak izan zituen trantsizio horrek. Hori da, hain zuzen, azaldu behar dena. Oso egoera baldintzatua, inpunitatez josia... Alfonbra baten azpian sartu zituzten aurreko basakeria guztiak, ezer gertatu ez balitz bezala. Hor dago gakoak.

Joseba Sarrionandiaren obra errezitatuta itxiko dute ‘Sarri, hitzez eta ahotsez’ ekimena

Plateruenean antolatu dute ekimena, idazlearen obran sakontzeko eta bere lana ezagutarazteko

> ITSASO ESTEBAN

Herritar literaturazale eta euskaltzale talde batek bultzaturiko ekimenari, *Sarri, hitzez eta ahotsez* izenekoari, amaiera emateko pentsatu dute maiatzaren 9ko Durangoko Platerueneko jendaurreko irakurraldia.

Urte hasieratik hona Iurretako idazlearen obra ezagutarazteko antolaturiko ekimen guztiak bezala “nahi duen orok parte hartzeko pentsaturikoa” da irakurraldia ere, “herri mailako ekimena delako”, antolatzaileen berbetan. Joseba Sarrionandiaren obraren parte bat bere

ahotsetik eman nahi duen orok maiatzaren 6ra arte dauka izena emateko aukera, eta saioa entzutera ere gonbidatu dituzte Durangaldeko herritarrek.

Hiru ataletan banaturiko ekimena izan da *Sarri, hitzez eta ahotsez*: Jose Mari Iturrালেরen berbaldia izan zen lehenengoa; solasaldiak egin dituzte bigarrenik; eta Platerueneko irakurraldia izango da azkena.

Irakurrita, bertso forman emanda eta kantatuta eskainiko dituzte herritarrek Sarrionandiaren berbak: ikasleek, irakasleek, kazetariak, poetak, alka-

teek, parlamentariak eta zinegotziek, adibidez. Marisa Barrena ekimenaren bultzatzaileetako batek azpimarratu duenez, “esparru guztietako jendea arotuko da *Sarri*ren testuak irakurtzen; ideologiari dagokionez ere, alde guztietako jendea”.

Barrena durangarragaz batera, beste zazpi lagunek ekimena izan da *Sarri, hitzez eta ahotsez* antolatzea: Asun Elorriaga, Ixone Aroma, Xabier Boveda, Goiuri Iturriza, Miren Erzilla, Ziortza Aldekoa-Otalora eta Jon Gorritxategirena.

Zortzi lagunek egin dute emanaldirako irakurgaien hautaketa. Olerkiak, eleberrietako pasarteak eta narrazio laburrak irakurriko dituzte herritarrek 18:00etatik gaurera arte luzatuko den ekitaldian: *Akordatzen* liburuko pasarteekin hasiko dira, eta, besteak beste, *Hitzen ondorena*, *Hnuy illa nyha majah yahoo*, *Kartzelako poemak*, *Ainhoari gutunak*, *Atabala eta euria*, *Lagun izoztua*, *Kolosala izango da* eta *Moroak gara behelaino artean?* hartuko dituzte ahotan.



Izurtzako Etxaburu jauregian batu ziren bigarren solasaldirako.

ASUN ELORRIAGA, IXONE AROMA ETA MARISA BARRENA |

“Solasaldietan zelako jendeak parte hartu duen ikustea oso polita izan da”

‘Sarri, hitzez eta ahotsez’ ekimenaren antolatzaileetako hiru dira emakumeok

Zelan elkartu zarete zortziok ekimen honen bueltan?

Ixone Aroma.: Artikulu batean proposatu zuen Marisak

Bilbon egiten duten bezala guk ere errezitaldi bat egitea herrian. Eta autorea ere proposatu zuen: Joseba Sarrionandia.

Asun Elorriaga.: Ahoz aho, kalean sorturiko ekimena da. Askotariko jendea batu gara.

Marisa Barrena: Literaturazaleak, euskaltzaleak eta *Sarri*zaleak batzen gaitu zortzi lagunok.

Sarrionandiaren lanean sakondu gura izan duzue?

M.B.: Jendea euskal literatura, *Sarri*ren lanera hurbiltzea izan da gure helburua. Izan ere, ematen du jende batek beldurra diola: zaila delako ustea oso zabalduta dago. Hoztasun hori gainditzeko izan da helburua.

A.E.: Solasaldietan zelako jendeak parte hartu duen ikustea

oso polita izan da horregatik: *Sarri* sekula irakurri ez duen jendea etorri da, eta baita bere lanaz asko dakiena ere. 15 eta 70 urte arteko lagunak batu gara, eta guztion iritzia entzun eta baloratu ditugu solasaldietan.

I.A.: Parte hartu duen jende horrek *Sarri*ren lanak irakurriko ditu aurrerantzean ere, eta oso pozgarria da hori.

M.B.: Solasaldietan partaidetza helburua lortu dugu, eta maiatzaren 9ra begira ere helburu hori bera daukagu: jendea hurbildu dadila eta parte hartzea. Kultura ez dadila bakarrik kontsumorako gaia izan. Dagoeneko 180 lagun zerranda osatu dugu, eta nahi duen oro sasoiz dabil izena emateko.

Zer jaso duzue ekimenetik?

M.B.: Ikasi eta disfrutatu egin dugu. Beti gustatu izan zait *Sarri*ren lana, baina tertulietatik

hona desberdin irakurtzen dut: sekula ohartu ez naizen gauzei erreparatu diet. Gazteen interpretazioek asko harritu naute.

A.E.: Oso interesgarria da beste ikuspuntu bat duenaren interpretazioak entzutea.

M.B.: Gogoetarako hain esparru zabala eskaintzen du *Sarri* planteatzen dituen galderekin!

Zein da ekimen honek utziko dizuen oroitzapen bereziarena?

M.B.: Askotan emozionatu gintuzten *Sarri* ekimenaren harira bidalitako berbek: “Irakurleok egiten duzue literatura”, esan zigun. Ikasbidea da bere mailako idazle batek irakurleari halako aintzatespena egitea.

Sare hau ez da maiatzaren 10ean desegingo, ezta?

M.B.: Ekimena ebaluatuko dugu, lehenengo, eta datorren urteari begira pentsatzen hasi.



Imanol Larrinagak egindakoa da ekimena iragartzen duen kartela.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

> **MUSIKA**

Ganbera-musikaren 5 emanaldi izango dira Zornotzako auzoetan

Musika klasikoa, jazz, klezmerra eta folka Zornotzako Eleizetan jaialdian

> **ITSASO ESTEBAN**

David Latxaga Zornotzako alkatetza, Andoni Agirrebeitia zinegotziak, Luisja Ugarte Zornotza Aretoko programatzaileak eta

José María González klarinetista eta saxofonista zornotzarrak aurkeztu dute 2014ko Eleizetan jaialdiko programazioa. “Hamabosgarren urtez, beste mota

bateko kultura eskaini” gura du udalak, eta, aldi berean, auzoetan ere kultura zabaltu.

Ugarte programatzailearen berbetan, “ganbera-musika



San Bartolome baselizan egin dute Eleizetan jaialdiaren aurkezpena.

• **Maiatzak 10, 20:00**

Boroako San Pedro baselizan HERMANAS CARONNI

• **Maiatzak 16, 20:00**

Dudeako San Miguelen BOTXO BOOGIES

• **Maiatzak 18, 12:15**

Etxanoko Andra Marin BAROCCO SEMPRE GIOVANNE

• **Maiatzak 24, 20:00**

San Bartolome baselizan XABIER ZEBERIO ETA PELLO RAMIREZ

• **Maiatzak 25, 12:15**

Bernagoitiko San Miguelen TRIVIUM KLEZMER

Autobusa: Ordu erdi lehenago, Gudari kaleko autobus geltokitik.

> **ERAKUSKETA**

Zaldibarko hiru sortzaileraren lana maiatzaren 5era arte Durangon

Joan zen barikuan zabaldu zuten hiru sortzaile zaldibartarren lana biltzen duen erakusketa kolektiboa Durangoko Ezkurdi aretoan, eta bertan egongo da maiatzaren 5era arte ikusgai. Jon Agirre eta Antonio Villanuevaren argazkiak, eta Carlos Praderaren tailak bildu dituzte erakusketa horretan. Lehenago Zaldibarren eta Berrizen ere erakutsi dituen *Hain hurbil*, *hain urrun* bildumako Cerezo de Río Tirón herriko irudiak ekarri ditu Villanuevak Durangora, eta Pariskoak Agirrek. Argazkiekin batera, Praderak zurez egindako lanak daude ikusgai.

Astegunetan, 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago Ezkurdi aretoa zabalik.

> **KONTZERTUAK**

Be Forest italiarra domekan, Berrizen

Tren Geltokiko Kontzertuen zikloa, Kultur Etxean

Berrizko Kultur Etxean izango dira maiatzeko Tren Geltokiko Kontzertuak deitu duten zikloaren barruko zuzeneko musika emanaldiak. Domeka honetan, Europan zehar biran dabilen Be Forest taldeak zabalduko du eskaintza. Italiako laukotea da Be Forest. Otsailean kaleratu zuen *Earthbeat* autoekoizturiko diskoa aurkezten dabil; kanta “soil, baina erromantikoz” eta “hipnotikoz” osaturiko lana. Hirukote bezala, 2011n kaleratu zuen *Cold* izeneko lehenengo diskoa, eta bigarrenako laugarren kide bat batu da taldera: elektronika gehitu dio gitarra, bateria eta ahotsa zeuzkan taldeari.

Bartzelonako The Last 3 Lines taldea ariko da Tren Geltokiko Kontzertuen zikloko

bigarren hitzorduan: 9an. Rock psikodelikoa eskainiko du.

Euskal Herrian bizi diren musikari bi ere ariko dira. Maiatzaren 23an, Donostian bizi den Luke Armstrong ariko da bere gi-

formatukoak dira bost kontzertuak, oso hurbilak, baina denetarikoa estiloetako musika izango da entzungai”. Euskal Herriko talde bi eta nazioarteko hiru proposamen izango dira aurtent: “Gauza bitxiak eta desberdinak entzuteko aukera egongo da”.

Maiatzaren 10ean, txeloz, klarinetez eta ahotsez osaturiko Hermanas Caronni Argentina-bikoteak zabalduko du aurtengo zikloa, Boroako San Pedro baselizan, 20:00etan.

Bestalde, jaialdiaren aurkezpenean egon den José María González *Sema* herriko musikariaren Botxo Boogies lauokotea ariko da maiatzaren 16an, Dudeako San Miguel baselizan. Musika klasikoa eta jazz joko dute, Juan Crisóstomo Arriaga konpositorea omentzeko. “Oho-rea, poz handia da herrian jozteak”, esan du Gonzálezek.

Txekiako Barocco Sempre Giovane taldeak, Xabier Zeberio eta Pello Ramirezek osaturiko bikoteak, eta Aragoiko Trivium Klezmer taldeak ere joko dute Zornotzako aurtengo Eleizetan jaialdian.

tarragaz. Ingalaterran jaioakoa da, baina Irlandako eta Eskoziako sustraiak ditu, eta folk tradizionalean sortzen du musika.

Maiatzaren 31n, Kultur Etxean barik, Andikoako Andra Mariaren baselizan izango da zikloko azken kontzertua. Amaren Alabak taldeko kantari zuberotarrek ariko dira Berrizen: Maider eta Graxi Bedaxagar, Lüxi Agergarai, Arantxa Camus, Ihitz Iriart eta Maika Etxekopar.



Gitarra, bateria, ahotsa eta elektronika dira Be Forest taldearen osagaiak.

GEURE DURANGALDEA

**ARANTZA
ARRAZOLA
ETA MAIDER
LARRAÑAGA**

San Agustin
kulturgunea

**Pailazo, izan edo egin?**

Oraindik Topaklowneko festaondokoarekin egunotan izandako burutazio honekin akordatu naiz: nola ote da bat pailazo, izatez edo egitez? Durangar batek aitortu zidan 100 pailazok ikastaroak hartuko zituztela irakurri zuenean, kaletik ere “pailazo jantzita” joango zirela uste izan zuela. Barrez erantzun nion Topaklown aditu talde batek gidatutako trebakuntza saioa zela, batzuetan pertsonaiaren batez karakterizatu beharra zegoe-la... baina ez beti!

Eta hara zertaz konturatu naizen: jendea harri eta zur gelditzen da pailazo izateko ikasi egin behar dela jakiten duenean. Ba bai, jaun-andereok, gainontzeko ofizio eta ogibideetan bezala, pailazoek ere ikasi beharra dute euren egitekoa ondo egiteko, eta serio asko ikasi ere! Kosta egiten da imajinatzea irakasleen seriotasuna eta exigentzia, keinu edo inprobisazio bakoitzari onena ateratzerakoan, eta pailazoaren arreta eta kontzentrazioa, ikasgaia serio-serio jarraitzerakoan!

Denok sentitu izan dugu errukia barrerik eragiten ez duen pailazo baten aurrean. Izan ere, topikotik haratago, oso nekeza da barrea eragitea, lortzeko entrenamendua eta trebakuntza behar dira. Litekeena da jaiotzez talentuduna izatea, baina dohain hori landu ezean, hortxe geratuko da. Pailazo izateko ikasi daiteke, aditu onekin ikasi ere, eta formakuntza hori Durangon eskaintzen da, Topaklownen, eta gu zera baino pozago!

–Ikusi duzuenetz, *pailazo* berba aldarrikatu dut, ingeleseko *clown* hitzaren aldean, ez da hain exotikoa, baina ederra da gero–.

CABARET CHIHUAHUA
Pabellón 6

Maiatzaren 10ean - 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

MAIATZAK 2 - 23:00etan 20/25 euro
VIVIANE AND LE JOLOF BAND
MUSIKA KONTZERTUA

MAIATZAK 8 - 20:00etan
DF BERTSOZALE ESKOLA
ELKARRIZKETA

MAIATZAK 9 - 18:00etan DOAN
SARRI, HITZETZ ETA AHOTSEZ
ETENIK GABEKO JENDEAURREKO IRAKURKETA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu deitu!

946 217 902

HAUR HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA HAURTZAINDEGIA 2014-2015

**ZURE SEME/ALABA 2013. edo 2014.
URTEAN JAIO BADA, IZENA EMAN DEZAKEZU**



HAURTZAINDEGI ZERBITZUA: URREZKO Q- KUDEAKETAREN KALITATEARI EUSKAL SARIA 2013. URTEAN

Eusko Jaurlaritzaren urrezko Q-a, kudeaketaren kalitatearen euskal saria jaso dugu 2013. urtean. Sari honen bitartez Eusko Jaurlaritzak erakunde aurreratuenak aintzat hartzen ditu, eta horrek heziketa alorrean aritzen diren euskal erakunde onenen artean kokatzen gaitu.

Ikastetxe ezaguna eta aintzat hartua gara, eredu eleanitza duena, heziketa eta eskolaz kanpoko eskaintza osoarekin, kristau baloreen transmisioan konprometitua, hezkuntza ospearekin, goi-mailako hornidura eta instalazioekin..., eta etengabeko hobekuntzan.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA: LAN BIZITZA ETA FAMILIA BIZITZA BATERATZEN

- 0 urtekoen gela (2014. urtean jaioetako umeak): heziketa eskaintza berria irailaren 1etik aurrera (uztaila barne) **IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK.**
- Urte 1ekoen gela (2013. urtean jaioetako umeak): irailetik uztailera bitartean eskainiko dugu zerbitzua, bi hilabete horiek barne. Izena emateko epea zabalik. **ORAINDIK PLAZA LIBREK GERATZEN DIRA.**
- 2 urtekoen gela: irailetik uztailera bitartean eskainiko dugu zerbitzua, bi hilabete horiek barne. Familia-beharren arabera, ikastetxea 7:45etik 16:30etara egon ahal izango da zabalik, eta 19:00ak arte luza daiteke. Haurrak ezin izango dira egunero 8 ordu baino gehiago ikastetxean egon.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA: ZERBITZU ETA GIZA KONPROMISOAN

Familiak, zentroa irekita egongo den 208 eguneko arreta zuzenagatik ordaindu behar duten kostua 11 hileko kuotatan zatitu egiten da, hilabete bakoitzean ikastetxea irekitzen den egun-kopurua kontuan izan gabe.

- **0 urtekoen gela (11 hilabete):**
5 ordu edo gutxiago: 160 euro
5 ordu baino gehiago: 200 euro
- **Urte 1ekoen gela (11 hilabete):**
5 ordu edo gutxiago: 160 euro
5 ordu baino gehiago: 200 euro
- **2 urtekoen gela (10 hilabete):**
Eskola egutegia (09:00etatik 16:30era) : 82,30 euro (eskola materiala barne)
Egutegi luzapena (07:45etik 09:00etara eta 16:30etik a 19:00etara) : 120,00 euro (eskola materiala barne)
Uztailan: tailerretako aukerako eskaintza.

San Jose Jesuitak ikastetxeak Solidaritza Fondo propioa du (barneko bekak) gure ikastetxean bere seme-alabak izena eman nahi duten familiak egin dezaten, bere egoera ekonomikoa hartarako oztipo bat izan gabe.

**ORAIN 0 URTETIK 18 URTERA
UNIBERTSITATERANTZ**

BATXILERGOAK 2014-2015

ZATOZ GURERA!! • INFORMA ZAITEZ



**ISO 14001:2004
ISO 9001:2008**

Ikastetxe ezagun eta aintzatetsia
Heziketa eskaintza osoa (Urte batetik 18ra bitartean)
- Balio kristauak transmititzeko konpromisoa.
Hezkuntza arloan ospeduna (kalitatezko hezkuntzaren bermea)
- Pertsona konprometituez osatutako taldea.
Kudeaketa sistema (Zilarrezko Q, ISO 9001 eta ISO 14001)
Lehen mailako instalakuntza eta hornidurak.
Eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza.



Kudeaketaren
Kalitateari
Euskal Saria
2013
Premio Vasco
Calidad
de Gestión



ADINAK

HAUR HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

DBH

BATXILERGOAK

UNIBERTSITATEA
GOI MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17

Kurutziaga, 1 - 3 P.K. DURANGO Tel.: 94 681 00 50 Fax: 94 681 03 04 E-mail: sanjose@durangojesuitak.org

www.durangojesuitak.org

> MUSIKA

“Diskoagaz zabalduko den bidetxoa egiteko gogotsu nago”

‘Berreginez’ bere lehenengo diskoa aurkeztuko du Mikel Inunziaga ‘Inun’ (Zornotza, 1983) musikariak maiatzaren 7an, Bilboko Kafe Antzokian

> ITSASO ESTEBAN

Zer sentipen sortzen dizu diskoaren aurkezpenak?

Sosegu eta zirrara sentipenak dauzkat aldi berean. Sosegua, azken hilabeteetan buruan izandako ideia azkenik kaleratu egin dudalako. Eta zirrara, diskoagaz zabalduko den bidetxoa egiteko gogotsu nagoelako.

Aurkezpen kontzertua Bilboko Kafe Antzokian eskaintzea berezia da zuretzat?

Oso. Kafe antzokia euskal kulturaren gune erreferente bat da. Bertan kontzertu bat egiteko aukera izatea ederra da niretzat.

Aspalditik diharduzu musikari lotuta. Zergatik ez duzu orain arte diskorik atara?

Kasu handia egiten diot senari. Nahiz eta proiektu ugari sartuta egon naizen, ez nuen diskoaren ideia argi ikusten. Aurreko urteko uztailean, ordea, senak esan zidan ordua zela disko bat kaleratzeko. Beraz, lanean hasi nintzen *Berreginez* nire lehen diskoa lantzen.

Gitarraz eta ahotsaz gainera, zure kanten oinarri erritmikoa zeuk egiten duzu (‘loop’-agaz grabatuta). Orain arteko ibilbidean ere jardun izan zara horrelako baliabideekin?

Ez. Orain arte nire kontzertuak taldean edo bakarlari gisa egin ditut. Bakarrik nengoenean gitarra akustikoarekin egiten nituen, inolako pedalen laguntzarik gabe. *Loop* pedala ezagutu eta maitemindu egin nintzen. Grabazioan erabili nuen, eta kontzertuetan ere badarabilt.

Zelako esperientzia izan da grabaketa zuzenean egitea?

Benetako erronka izan da. *Loop* horietako bategaz, danbor elektronikoagaz eta hainbat oihartzun mota egiten dituen pedal bategaz egin nuen zuzenean. Kontzentrazio handiko hiru egun zoragarri izan ziren.

Diskokoak pop kantak direla irakurri dizugu. Esparru zabal horretan zer ñabardura dute zure kantez? Zer eragin?

Egia esan, eraginak aipatzen ha-



siko banintz, zerrenda luzeegia osatuko nuke. Hiru izen eta hiru arrazoi aipatuko ditut: John Mayer, gitarra akustikoa jotzeko duen maisutasunagatik; Jorge Drexler, kantak eta erritmoak egiteko duen eragatik; Kerobia, hizkuntza eta melodia uztartzeko duen gustuagatik.

Disko honetako kanten letrak zeuk idatzirikoak dira?

Orokorrean bai, baina laguntza ere izaten dut. Iñaki Mendizabal kazetari eta idazlea laguna dut, eta berak ere hitzak egiten diz-

kit. Disko honetan, adibidez, lau kantaren hitzak bereak dira.

Maiatzaren 7ko Bilboko kontzertuaren osterako baduzu besterik hitzartuta?

Bai. Maiatzaren 9an, Areatzan joko dut; 21ean, Bilbon ariko naiz berriro; eta 30ean, Zornotzan. Gero, ekainerako ere baditut data batzuk finkatuta.

Diskoa eskuratu gura duenak non erosi dezake?

Momentuz maiatzaren 7an Bilboko Kafe Antzokian, 5 eurore-

kin sarreraz gainera, diskoa ere emango da eta. Hortik aurrera Facebookeko *Inun* orrialdean zehaztuko dut horren inguruko informazio guztia.

Hilabete honetan Almeriako jaialdi batean parte hartu duzu. Lehenago Kuban ere jo izan duzu. Baduzu ‘Berreginez’ lanagaz Euskal Herritik kanpo aritzeko asmorik?

Nire lana euskaldunei bideratua dago. Hala ere, horrelako ateraldiak oso aberasgarriak izaten zaizkit.

> BERTSOLARITZA

Formatu berriagaz, lau elkarrizketa dakartza 2014ko bertsozale eskolak

Euren “bertso ibilbideez” ariko dira Amuriza, Arozena, Egaña eta Lazkano

Zortzi bertsolariren arteko berbaldia izango da entzungai Plateruenak antolatzen duen DF Bertsozale Eskolan. Lau hitzordu izango dira, eta horietako bakoitzean bertatik bertara elkarrizketatuko du bertsolari batek beste bat. Maiatzaren 8an, esaterako, Unai Iturriaga Xabier Amurizagaz ariko da solasean.

Unai Iturriagak, Erika Lagomak, Igor Elortzak eta Miren Amurizak gidatuko dituzte elkarrizketak

Manolo Arozena, Andoni Egaña eta Imanol Lazkano bertsolariak izango dira bertsozale eskolako hurrengo hiru hitzor-

duetako protagonistak; Erika Lagomak, Igor Elortzak eta Miren Amurizak elkarrizketatuko dituzte, hurrenez hurren.

Ibilbide luze eta oparoko lau bertsolari euren bizipenak konpartitzera gonbidatu dituzte aurten DF Bertsozale Eskola antolatzen duten Plateruenak eta Durangaldeko Bertso Eskolak.

Seigarren urtez antolatu dute ekimen hau Durangoko Kafe Antzokian. Bertsogintzaren askotariko gaien inguruko interesa dutenei elkargune bat eskaintzeko helburuz antolaturiko ekimena da bertsozale eskola, eta oso harrera beroa egin diote aurreko edizioetan bertsozaleek. Epailertaz, gai-jartzailetzaz edota bertsolariaren sorkuntzaz berbetan entzun die publikoak protagonistei, eta bertsolaritzari

loturiko askotariko gaien inguruko ikastaro praktikoak ere eskaini dituzte aurreko edizioetan, Plateruenean.

Doakoak izango dira saio guztiak, eta Plateruenean bertan edo antolaketa@plateruena.net helbidean eman daiteke izena.



Amuriza: lehenengo elkarrizketatua.

> ANTZERKIA

‘7 aulki’ obra estreinatuko dute gaur, Abadiñon

Traña-Matienako jaietan egingo dute aurkezpena

San Prudentzio jaien egitarauaren barrukoa da gaurko antzerki emanaldia. Gaur taularatuko du *7 aulki* obra lehenengoz herriko 25 gaztek osaturiko Et@rte antzerki taldeak. Traña-Matienako Errota kultur etxean izango da emanaldia, 22:00etan. Doako sarrera izango du emanaldiak, baina aurretik kultur etxean bertan eskuratu daiteke sartzeko gonbidapena.

12 eta 17 urte arteko gazteek antzezten dute obra –lehenago antzerki tailerrean jardundakoak batzuk, eta oholtza gainean lehenengoz dihardutenak beste batzuk–.

Taldeko kideek aurreratu dutenez, Abadiñoko euskararen egiten dituzte obrako elkarrizketak, eta komedia eta drama uztartzen ditu antzezlanak.

Tailerraren arduradun jardun den Eñaut Uruburuk idatzi eta zuzendu du gazteen *7 aulki* obra. Maddi da protagonista, “eserleku bat aurkitzeko ahaleginetan” dabilen neska.

Gazteen artean aisialdia eta balioak lantzeko helburuagaz Abadiñoko Udaleko Gaztedi Arloak antolaturiko tailerrean sorturiko taldea da Et@rte. Eñaut Uruburu abadiñarrak egin zuen taldea sortzeko proposamena, eta udalak lagundu egin die; Ima Zapardiez zinegotziaren berbetan, “gazte jendea era guztietako proiektuetan inplikatu nahi duten herritarren ekimenak bultzatzea da udalaren asmoa”.

Sanprudentzioetan egingo dute estreinaldia, baina aurreratu dutenez, Zelaietako santrokazetan ere eskainiko dute.

Kirola

Zaldutri: Pausoz pauso aurrera doan Zaldibarko triatloi taldea

Zaldibarko herritar batzuek triatloi taldea sortu dute, eta bertan parte hartzeko ateak zabalik dauzkate



> MARKEL ONAINDIA

Zaldibarrera ere ailegatu da Triatloiaren moda. Duela urtebete inguru hasi zen mugimendua, eta pausoz pauso doaz aurrera. Kirol honegaz zaletu, eta hartu-emanetan hasi ziren herritar batzuk. Ondoren, taldea sortzea erabaki zuten. Hilabeteetan elkartea eratzen ibili dira, eta egia bihurtu da: Zaldutri izenagaz bataiatu dute taldea.

Jose Ignacio Letamendia eta Ander Cantero dira taldeki-deetako bi. Ondarroako herri triatloi batean parte hartu zuen lehenengoz Letamendiak. Bere anaia Durangoko Mugarra Triatloi Taldean dabil, eta berak eragin zion kuriositatea. Cantero mendiko bizikletan ibiltzen zen, baina korrika eta igeri ere bai batzuetan. Berrizko igerilekuan elkar ezagutu, eta ikastaro

batean parte hartu zuten. Lehenengo triatloietan parte hartzen hasi ziren orduan. Ekipazio

Izena eman gura duen edonork ateak zabalik dauzkala nabarmendu dute

berezi bat janzteko ilusioa piztu zitzaion, baina horretarako talde baten beharra zeukatela ondorioztatu zuten. Laguntza ekonomikoaren bila ere ibili dira eta topatu dute; Azpiaran, Alkideba, Patatas Eitua eta Koart 905 enpresek babestu dituzte.

Kluba sortu dute eta, momentuz, sei lagun daude. Baina izena eman gura duen edonork ateak zabalik dauzkala nabarmendu

dute: “Gero eta jende gehiago hobeto”, esan du Letamendiak. Eurak ere hasiberriak direla eta beldur barik hurreratzeko deia egin du Canterok: “Gustatu zaigun afizio bat da. Bakoitza, astiro-astiro, bere helburuekin eta ideiekin doa aurrera”. Izena eman gura duenak zaldutri@gmail.com helbidera idatzi ahal du kontaktuan ipintzeko.

Kateatu egiten du

Zaldutriko kideek uste dute kirol erakargarria dela triatloia, kateatu egiten duela. Gainera, lasterketetan giro ona dagoela esan du Letamendiak: “Jendeak asko laguntzen dio elkarri; desberdina da”. Horrez gainera, ariketa fisikoaren ikuspuntutik ere alde positiboa ikusten du Canterok: “Nik gainditze prozesu bat lez ikusten dut. Zu zara korrika, bizikletan eta igerian. Zu mentalizatzen zara”.

Zaldutri taldeko

kideek uste dute kirol erakargarria dela triatloia, kateatu egiten duela

Oraindik talde jaioberria denez, ez dute erabaki Zaldibarren ekintzarik antolatuko duten edo ez. Interesa eduki arren, ekimen bat antolatzeko jendearen laguntza beharko dela uste dute. Momentuz, taldea sendotzea da euren asmoa.

Ekipazioa diseinatu dute eta estreinatzeko itxaroten daude. Maiatzaren 10ean lasterketa batera doaz Zaldutri taldekoak, eta han egin gura dute debuta ekipazioagaz.

> TRIATLOIA

Garaiko triatloia bertan behera utzi dute, baldintzak direla-eta

Uztailaren 5erako iragarrita zegoen proban, errei biak itxi beharko lituzkete

> J.D. / M.O.

Uztailaren 5erako iragarrita zegoen Garaiko triatloi probaren laugarren edizioa, baina azkenean ez da antolatuko. Herriko triatloi taldekoek bertan behera utzi dute, Trafiko Sailetik ezarritako baldintzen eraginez.

Euskal Herriko beste proba batzuetan ere arazoak eduki dituztela ikusita, batzarra eskatu zieten Trafiko Sailekoei. Joan zen astean batu ziren, eta ordezkariak adierazi zieten legea zorrotz betearaziko dutela; hau da, proba garatzen den egunean errepideko errei biak itxi beharko lituzketela. Baldintza horietan triatloia antolatzea ez dute bideragarri ikusten garai-

Baldintza horietan triatloia antolatzea ez dute bideragarri ikusten garaitarrek

tarrek. Errei biak itxita, trafikoa denbora luzeegian egongo litza-teke moztuta. Kontuan hartu behar da lehen eta azken sailkatuaren artean ordubate inguruko alde egon ahal dela. Hori guztia Lekeitio inguruan, udan turistez lepo egoten den herriaren inguruan. Garaitarrei ez zaie justua iruditzen. Gainera, askoz jende gehiago beharko lu-

kete antolaketari aurre egiteko. Horiek izan dira triatloia bertan behera uzteko arrazoi nagusiak.

“Frustrazioa eta sekulako pena”. Horrela definitzen du proba bertan behera uzteak eragin dien sentsazioa Jon Sarasua taldekideak. Triatloia Garaiko jaien bueltan antolatu izan dute orain arte. “Oraindik ez dugu erabaki zer, baina zer edo zer antolatuko dugu”. Triatloia ez den beste ekimenen bat izango da.

Durangaldean bertan behe- ra geratu den bigarren proba da Garaikoa. Izan ere, martxo hasieran Mugarra Triatloi Taldeak bertan behera utzi behar izan zuen urtero antolatzen zuen duatloia.



Iaz, Garain egindako triatloiaren irudi bat.

> **SASKIBALOIA**

Zornotzak burua ondo goian duela esan dio agur igoera faseari

Larrean hirugarren partidua behartu zuen lehia gogoangarrian, baina martitzenean galdu egin zuen Katalunian jokatutako lehia erabakigarria



Hirugarren partidua erabakigarrian Zornotzako taldeak galdu egin zuen Katalunian. Kepa Aginako.

> **JOSEBA DERTEANO**

Amaitu da Zornotza Saskibaloia Taldearen denboraldia. Igoerako playoffei dagokien final laurdenetako kanporaketan 1-2 galdu du Kataluniako El Prat (Juventud klubaren filiala) taldearen aurka. Uneko etsipene-

tik harago, burua ondo goian edukitzeko arrazoiak ditu Zornotzak. Izan ere, Zilarrezko mailako Adecco ligako debut urtean mailari eustea ez ezik, onenen artean lehiatzea lortu du.

Etxetik kanpora lehen partidua galdu ostean, Larrean nahi

eta nahi ez irabazi behar zuen Zornotzak. Eta partidua handiek eskatzen duten balentriarekin lortu zuen helburua; partidua amaitzeko lau segundoren faltan eta markagailuak 56nako berdinketa islatzen zuela, Toni Lorenzok zortzi metro baino ha-

ragotik jaurtitako hiruko batek eman zion garaipena taldeari. Larrea kiroldegia lepo bete zuen marea berdeak poz handiz ospatu zuen garaipena.

Bigarren partiduen ostean, martitzenean, Katalunian jokatutako hirugarren partidua erabakigarria. Lehen laurdenean El Praten jokoari eustea lortu zuen, baina ordutik aurrera Kataluniako taldea beti aurretik joan zen: 32-22 atsedendian eta 56-40 hirugarren laurdenaren amaieran. Azken laurdenaren hasieran, Zornotzak partiduan sartzeko azken saiakera egin zuen (56-49), baina, hutsarte batetik bueltan, El Pratek partidua erabakita utzi zuen, talentu handiko jokalariek gazteak dituela erakutsita. Azken emaitzak ez du dudarako tarterik uzten: 74-55. Ibon Carreto izan zen Zornotzako saskiratzaile nagusia 14 punturekin; Kyle Rowleyk 14 puntuko balorazioa izan zuen.

Horrenbestez, Zornotzak egin ditu egin beharrekoak aurtengo denboraldian. Mailari eustea helburu zuen denboraldian igoera lortzeko borrokan aritu da. Mikel Garitaonandiak gidatuta taldeak zaleen ilusioa piztuta mantendu du azken unerarte, eta zaleek ere merezitako erantzuna eman diote taldeari, Larrea kiroldegia partiduz partidua berdez tindatuta.

ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez

Errugbia

O'Driscollen agurra

XXI. mende honetan, komunikabideei esker, goi mailako edozein kirolari ezaguna dugu. Txikitik, ordea, kromoak erosten genituen kirolariak ezagutzeko, eta sekulako erri-tuala zen albumean itsastea, eta errepikatuta genituenak aldatzea.

Hala ere, baziren jokalariek batzuk xarma berezia zutenak, eta albumean itsatsi ondoren aldatzen ez genituenak, karpetan edota beste leku batean jartzeko. Errugbiari dagokionez, gaur egun, kasurik aipagarrienak Jonah Lomu eta Sebastien Chabal lirateke.

Baina jokalariek bat bereizi beharko banu, nik Brian O'Driscoll irlandarra aipatuko nuke. 20 urterekin egin zuen debuta Leinster taldearekin, 1999. urtean. Geroztik bertan aritu da taldez aldatu barik, diru aldetik eskaintza hobeak izan arren, koloreak sentitzen zituelako.

Besteak beste, Heineken Cup-a hirutan irabazi du, nazioarte mailan Munduko lau txapelketatan hartu du parte, eta Sei Nazioen Torneoa birritan irabazi du, 2009. eta 2014. urteetan. Baina tituluen gainetik, Irlandak behar zuen liderra izan dugu, beti irribarretsua, beti aurrera egiteko grinarekin.

2015eko Munduko Txapelketan, Brianek agur esatea erabaki du, bere gorputzak "nahiko" esan du. Bejondeizula, Brian, egindako guztiagatik! Errugbia handi egin duzu, eta ea elkar ikusten dugun Twickenhamen garagardo bat eskuetan!

> **ARTE MARTZIALAK**

Durangarrak bikain Munduko Txapelketan

Wado Kan taldekoek hamar domina irabazi dituzte



Durangoko kirolariak, dominak jantzita, eta Jose Luis Salas entrenatzailea.

Durangoko Wado Kan eskolako zazpi kirolarik estilo guztietako arte martzialen Munduko Txapelketan parte hartu zuten apirilean, eta guztira hamar domina irabazi zituzten: urrezko lau eta zilarrezko sei.

Portugalgo Vagos herrian jokatutako Munduko Txapelketan Wado Kan eskolako zazpi kirolarik parte hartu zuten, eta guztiek irabazi zituzten dominak. Marka handia da, kontuan hartuz gero Munduko Txapelketak 70 herrialdeetako 4.000 parte-hartzaile izan zituela, hamalau modalitateetan banatuta. Hainbat egunetan garatu zen txapelketa.

Pedro Romanek urrezko domina bi irabazi zituen bere modalitateetan; Natalia Vilarchaok urrezko eta zilarrezko domina bana kolkoratu zituen; Yaiza Pi-

neda izan zen urrezko domina irabazi zuen hirugarren durangarra. Iratxe Iriondo zilarrezko domina birekin itzuli zen etxera, eta Josu Legorburu, Beñat Nazabal eta Mikel Ibarzabal zilarrezko banarekin.

Esperientzia aberasgarria

Eskolako kideek adierazi dutenez, Wado Kan eskolarentzat emaitza "gogoangarriak izan dira, kontuan hartuta kirolari guztiak amateurak direla". Baina lehiaz harago, Munduko Txapelketa "oso aberasgarria" izan da Durangoko kirolariarentzat, hainbat arrazoiengatik: "Mundu osoko arte martzialeko kirolariak batzen dira eta, horregatik, besteengandik ikasteko aukera bikaina eskaintzen dute horrelako txapelketek".

hitz

liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT
NEVADA EGUNAK
Bernardo Atxaga

UME ETA GAZTEENTZAT
ASTERIX ETA PIKTOAK
J.Y. Ferri eta D. Conrad

MUSIKA
10 TRIO PIANO, BIOLIN
ETA AKORDEOIRAKO
Joserra Senperena

HEKi

HERRI KIROL KLUBA

- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

**Umeentzako eta nagusientzako
erakustaldiak eta antolaketak**

Arrike

Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar. Nukleo.

Ezkontzetan, naturaltasuna

Ezkontza sasoia dator. Zelan egiten duzue lan Nukleon?

Lehenik eta behin, neskagaz egiten dugu berba. Noiz ezkonduko den, non... Zelako soinekoa aukeratu duen ere galdetzen diogu: estiloa, soinekoaren eskotearen forma zelakoa den aurretik zein atzetik, nolako belarritakoak dituen... Eta, noski, bere gustuaren berri ere jakin behar izaten dugu. Gauza horiek guztiak jakinda, proba bat egiten diogu; normalean, soinekoa probatzeko egunean. Egun horretan zehazten da guztia.

Zelako estiloa da onena? Zer sustatzen duzue?

Ezkontzetarako gure estiloa oso naturala da. Ez zaizkigu ilea batzeko modu formalak gustatzen, nahiz eta modak beste gauza bat esan. Ez da batere komeni mozorrotuta joatea, bere alde onena ateratzea baizik. Ile laburra badauka, ez du zertan luze utzi. Ile laburdun estiloak ere oso politak dira. Bestela, ile luzea nahi izanez gero, luzapenak ere erabili ahal dira.

Eta mutilen kasuan, zer proposatzen duzu?

Mutilek astebete lehenago ilea ebaki eta ile zuriak disimulatzea. Gero, egunean bertan orraztea komeni da, argizaria edo gomina erabilia. Baina hori ere inor mozorrotu barik. Naturaltasuna da garrantzitsua.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

> FUTBOLA

Bere 20. urteurrenean klubarentzat historikoa den igoera lortzear da Ezkurdi

Arripausuetan Atxulaur taldeari irabazten badio, Lehenengo Erregionalerako igoera lortuko du bere 20 urteko historian lehenengoz; berdinketak ere balio diezaioke, Peñak Iurretako B-ri irabazi ezik

> JOSEBA DERTEANO

Aurten 20 urte egin ditu Ezkurdi futbol klubak eta urteurrena oparirik desiratuengaz ospatzeko puntuan dago. Domekan, 17:00etan, Atxulaur taldea hartuko du Arripausuetan, eta irabaztea lortzen badu, Lehenengo Erregionalerako igoko da. Maila horretan jokatu lukeen lehenengo biderra izango litzateke.

Partidu bi geratzen dira liga amaitzeko. Beraz, Ezkurdik aukera bi ditu igoera lortzeko. Orain puntu biko alde ateratzen dio igoera postuan dagoen Astrabuduako B-ri eta laukoa promozioan dagoen Peñari. Ezkurdik domeka arratsaldean irabazten badu, igo egingo da, baina irabazi gabe ere baliteke igoera ospatzeko moduan egotea. Peña taldeak domeka goizean jokatu du Iurretako B-ren aurka. Peñak asko jota berdindu egiten badu, Ezkurdik automatikoki igoera lortuko luke, *averagea* bereganatuta duelako. Eta Peñak ez irabaztea ez litzateke harritzeko moduko



Ezkurdik denboraldi osoan ez du partidurik galdu Arripausuetan. Jon Iglesias

emaitza izango. Izan ere, Iurretako B igoera promoziorako borrokan dabil, eta azken jardunaldira aukerekin heltzeko nahitaez irabazi behar dio arerio zuzena duen Peñari. Arratsaldean jokatu duen Astrabuduakoren huts batek ere balio diezaioke Ezkurdiri igoera ziurtatzeko.

Eskura dute klubarentzat historikoa izango litzatekeen igoera. Jokalariak badakite hori, eta aldagelan “euforia lartxo” sumatzen duela dio Iñigo Larrañaga entrenatzaileak: “Argi izan behar dugu oraindik ez dugula igoera lortu, eta gogotsu irten behar dugu domekan gure par-

tidua irabaztera”. Etxean zein kanpoan sendo agertu da aurten Ezkurdi, baina, batez ere, Arripausuetan lortutako emaitzek kokatu dute lider. Etxean ez du partidurik galdu: hamaika garaipen eta hiru berdinketa lortu ditu. Gainera, azken bost lehiak segidan irabazi ditu.

> AGENDA

> FUTBOLA

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**Elorrio - Iurretako**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalde futbol zelaian.

BIGARREN ERREGIONALA**Ezkurdi - Atxulaur**

· Domekan, 17:00etan, Arripausuetan.

HIRUGARREN ERREGIONALA**Amorebieta B - Ermua B**

· Zapatuan, 19:00etan, Txolon futbol zelaian.

Elorrio B - Loiu B

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalde futbol zelaian.

> SASKIBALOIA

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA**Tabirako Baque - Zornotza Presion Break A**

· Zapatuan, 18:45ean, Merkatu plazan.

LEHENENGO ERREGIONALA**Anbotopeko - Gernika**

· Zapatuan, 18:00etan, Tabirako kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA (2. fasea)**Tabirako Baque - Julza Zaldia**

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

Zornotza - Josebar Aguilas Salde

· Domekan, 18:00etan, Izerbekoan.

> BOLOAK

Arregui eta Uribarri beste behin Bizkaiko txapelkun

Zornotzan jokatu duen binakako txapela jantzi dute



Arregui eta Uribarri erdian, txapelak jantzita.

Zornotzako Epaltza auzoan dagoen bolatokian buruz buruko eta binakako Bizkaiko txapelketak jokatu dituzte boloetan (bolatoki modalitatean). Binakakoan Jose Luis Arregui *Txakalin* eta Pedro Luis Uribarri *Urtain* bikoteak jantzi du txapela. Bizkaiko txapelketa irabazten duten zazpigarren aldia da. Azken laurak bata bestearen atzetik irabazi dituzte.

Beñat Gorospe eta Eneko Gorospe sailkatu dira bigarren. Iaz ere txapelkunorde geratu

ziren. Hirugarren tokian bikote bi berdinduta geratu dira: Josune Sarrionandia-Iñigo Uriel eta Asier Petralanda-Jose Ramon Goti bikoteak.

Aurreko asteburuan buruz buruko txapelketa lehiatu zuten toki berean. Gizonetan Ismael Manzanedo izan zen onena, eta Eneko Gorospe eta Felix Varela sailkatu ziren bigarren eta hirugarren. Emakumeetan Igone Zamalloak jantzi zuen txapela, Josune Sarrionandia eta Naroa Izurzaren aurretik.

> ATLETISMOA

Lagos bigarren Euskadiko Xake Txapelketan

Joan zen astean buruz buruko gazteen Euskadiko Xake Txapelketa jokatu zuten Eibarren (Gipuzkoa), eta Jon Lagosek bigarren tokian amaitu zuen kadete mailan. Oso emaitza positiboa da, kontuan hartuz gero maila horretan lehen aldiz hartu duela parte. Gainera, azken unera arte txapelketa irabazteko aukerekin egon zen, baina Adrian Martinez basauriarraren kontrako partida erabakigarria galdu egin zuen, eta Martinezek jantzi zuen txapela. Lagosek beheragoko mailetan hainbat bider irabazi du Bizkaiko Txapelketa eta behin Euskadikoa.

Bestalde, Zornotzak nagusien mailako Euskadiko Txapelketak hartu zituen joan zen asteburuan. Durangaldeari dagokionez, Rodrigo Sarraalde durangarrak (Abadiño Xake Taldeagaz dihardu) bosgarren amaitu zuen. Azken txanpara arte maila oso ona erakutsi eta mahairik onenetan jardun zuen. Elorrioko Zaldi Baltzako Iñigo Axpek berdindu egin zuen Gerardo Fernandez aurkako bere partida. Txapelketa Santiago González bilbotarrak irabazi zuen.

> MENDIKO BIZIKLETA

Monegroseko proba irabazi du Gartxot Gisasolak

Joan zen asteburuan Huescan jokatu zen Monegros mendi bizikleta proba EPR Egoi taldeko Gartxot Gisasolak (Berriz, 1976) irabazi zuen: 3.46.31. Adierazi du “sasoian” dagoela erakustea eta “hamar onenen artean sailkatzea” zuela helburu, baina irabaztea “sorpresa” izan dela.

Probaren 115 kilometroetatik 100 ihes eginda eman zituen Durangon bizi den ziklistak. Tropelean eraso jo zuen baten gupilera sartu, eta, elkarlanean, aurretik zihoazenak harrapatu eta atzean utzi zituzten. Ondoren, 60. kilometroan, hirugarren ziklista bat gehitu zitzaion, eta helmugara arteko bidea elkarrekin egin zuten. Gisasolak bazekien helmugara orduko zeuden bihurtune bietara aurreneko sartzen zenak irabazteko aukera handiak zituela eta estrategia aurreikusitako moduan irten zitzaien.

Maiatzaren 16tik 18ra Errioxako Itzulian parte hartuko du. Denboraldiko bere erronka nagusia izango da. Munduko onenetarikoak egongo direla kontuan hartuta, aurreneko 50en artean sailkatzea du helburu.

> MENDI BIZIKLETA

Kofradietatik zehar ibilaldia egingo dute

Iurretara txirrindulari elkarteak XXVI. Kofradietako Ibilaldia antolatu du domekarako. Ibilbideak 35 kilometro ditu, eta, aurten, Oiz mendi magalean bide berriak ezagutzeko aukera eskainiko du. Mendi bizikleta ibilaldia 09:30ean hasiko da San Migel plazan. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke 08:30etik aurrera; bost euro da federatuentzat eta 19 euro federatu gabekoentzat.

> GOMAZKO PALETA

Berriz eta Elorrio gaztetxoaren arteko finalaren bila

Domekan, 11:00etan, Nesken Eskolarteko Paleta Goma Txapelketari dagozkion finalerdiak jokatu dituzte Mallabian, kimu eta benjamin mailetan. Berrizko Lorea Laskurain eta Alba Gomezek osatutako bikoteak Areatza izango du kontrario. Elorrioko Elene Ugaldea eta Inge Fondado bikoteak, aldiz, Orozkoren kontra jokatu du.

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, auto istripua,
drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...*

Iturriza, 44 - behea ezkerre
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA
KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

*Kiropodia, onikopatía, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

ODONTOLOGIA

clínica dental hortz klinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2 - C behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

OPTIKA

ZENTRO OPTIKOA

Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

PEDAGOGIA

UGAITZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel. 94 466 83 70 - 615 782 090

RPS: 63/63



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Inmobiliariak



AMBOTO
INMOBILIARIA

Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



AGENCIA INMOBILIARIA

Fernando Uribe

Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia



Inmobiliaria
del Duranguesado

Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



ETXETXO

G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO**
- MONTEBIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
